



Euskadi Ta Askatasunaren Adierazpena

Euskadi Ta Askatasunak, nazio askapenerako euskal erakunde sozialista iraultzaileak, Adierazpen honen bidez bere erabaki eta hausnarketaren berri eman nahi dio Euskal Herriari:

Mende erdi luzea igaro da ETAK, Euskal Herriaren ukazioa eta suntsitze estrategia basatiaren aurrean herritarrak antolatu eta, armak eskutan harturik, askatasunaren aldeko borrokari ekin ziola. Orduz geroztik ehunka dira erakunde honetara bere ilusioa eta grina, bere onena, ekarri duten gizon-emakumeak, belaunaldiz belaunaldi jatorri ezberdinetatik helburu berean bat egin eta egiten duten herritar xumeak: Euskal Herria eta Askatasuna.

Euskal Herriaren askatasunaren aldeko konpromisoak gidatu baitu ETAREN jarduna eta, oztopoak oztopo, arduraz eusten diogu konpromiso horri. Apaltasunez baina determinazioarekin, irabazteko anbizioarekin. Euskal Herriak merezi du.

Euskal Herriaren ukazioa betikotzen zuen frankismoaren erreforma politikoaren aurrean, eta beste zenbaitzuk marko autonomikoan barrena murgiltzea erabaki zuten bitartean, arduraz jokatu zuen ETAK, haustura demokratikoa proposatuz lehenik, eta asimilazio saio eta eraso orori aurre eginez, ondoren.

Borrokari tinko eutsi dio ETAK eta, oro har, ezker abertzaleak. Eta ordainsaria ez da nola nahikoa izaten ari. Larrutik ordaintzen ari gara: tortura, espetxea, erbestea eta bai eta heriotzarekin ere. Baina borroka latzaren lorpena izan da Euskal Herriak bizirik irautea, etorkizun askea eraikitzeke aukera zabalik izatea. Marko autonomikoa euskal herritarren nahiak asetzeko bide antzua dela erakutsi dugu, Euskal Herriaren zatiketean eta desegituraketan eragiteko tresna baino ez dela. Eta banan-banan garaitu ditugu askapen borroka neutralizatzerantz bideratutako neurriak.

Euskal Herriaren askapen borrokan eszenatoki berriak irekitzea izan da ETAREN zereginetako bat. Hortaz, elkarlan ekimen proposamen eta gatazka demokratikoki konpontzeko ekarpen jarria du ETAK. Txibertatik Lizarra-Garazira, Bergararaino igaroz. KAS alternatibatik Alternatiba Demokratikora. Euskal Herria eraikitzea interes partikularren gainetik dagoen zeregin kolektiboa dela ulertzen baitugu.

Euskal Herria une garrantzitsu baten aurrean aurkitzen da aspaldi honetan, bidegurutzean.

Urteetako borrokak baldintza politiko berriak erein ditu. Marko autonomikoa agorturik, aldaketa politikoa gauzatzeko unea heldu zaio Euskal Herriari, Euskal Herriarentzat marko demokratikoa eraikitzeke unea, euskal herritarren gehiengoaren nahiari atxikiz.

Espainiako estatuak jakin badaki Euskal Herria bidegurutzean dela, oraindik orain Euskal Herriak independentziaren aukera har dezakeela. Horregatik erasoaldi faxistaren tamaina. Aldaketa politikorako baldintzak blokeoaren etsipenean usteldu nahi dituzte; konponbide demokratikoa saihesteko eztabaida politikoa desbideratu; herriaren nahia salbuespen egoeran itoarazi.

Euskal eragileok, euskal herritarrok, erantzukizunez eta premiaz erantzun behar diogu egoerari. Hori da ETAK zabaldu nahi duen hausnarketa, luzatu nahi duen deia. Ardurak hartzeko eta urrats sendoak emateko garaia da:

- Independentismoaren proiektu estrategikoaren artikulazioan;
- Prozesu demokratikoa eraikitzeke baldintzak sortzeko bidean;
- Errepresioari erantzuteke eta eskubide zibil eta politikoen defentsa irmoan.

Aldaketa politikoa posiblea da. Baina ibilbide horretan ez dago bidezidorrrik. Askatasunaren bidea urratsez urrats ibili behar da; malgutasunez nahi bada. Baina helburuaren neurriko ahalegina eta borroka egin behar da, halaberharrez. Konfrontaziorik gabe ez dago ukazioa eta itxikeria gainditzetik. Ahalegin horretan luzaturik egon da eta dago ETAREN eskua, beti.

ETA gatazkaren konponbide demokratikoarekiko konpromisoan berresten da, elkarrizketa eta negoziazioaren bidez euskal herritarrok gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzekeo prozesu demokratikoarekiko konpromisoan. ETA prest dago, gaur atzo bezala, Espainiako gobernuak borondatea izanez gero, prozesu demokratikoa abiaraztekeo beharrezkoak diren gutxiengo demokratikoak adosteko.

Horrela jakinarazten diogu nazioarteko komunitateari ere eta dei egiten diogu ETAREN borondatea eta konpromisoari ardura historikoaz erantzun diezaion, mendetako gatazka politikoiari konponbide iraunkor, justu eta demokratikoa egiturazten parte har dezan.

ETAk hartutako erabakia

ETAk jakinarazten du hilabete batzuk direla eraso ekintza armaturik ez burutzeko erabakia hartu zuela.

ETAk berriro nabarmendu nahi du euskal eragile politiko, sozial eta sindikalei erantzukizunez jokatzeko deia. Prozesu demokratiko baten eszenatokira iritsi ahal izatekeo Herri bezala urrats sendoak ematea ezinbestekoa dela. Herriari Hitza ematekeo prozedura finkatzea nahitaezkoa dela. Euskal Herriaren eskubideak ezagutuak eta bermatuak izango direnean irekiko baitzaigu gatazkaren benetako konponbidearen atea.

Amaitzeko, euskal herritarrei oro har, borrokan murgildu eta jarraitzeko deia luzatzen diegu. Nor bere eremuan, bakoitza bere konpromiso maila eskainiz, guztion ur tanteez osatutako uholdearen bidez ukazioaren harresia bota eta askatasunaren aldeke bidean urrats atzeraezinak lortu ditzagun.

GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA! GORA EUSKAL HERRIA SOZIALISTA!
JO TA KE INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA LORTU ARTE!



Euskal Herrian, 2010eko irailean

Euskadi Ta Askatasuna
E.T.A.

